

JAKINTZA IKASTOLA 2022-23 INFORMAZIO OROKORRA

2 URTEKO IKASLEAK (2020an JAIOAK)

Gelako bilera

Irailaren 5ean 17:00etan Informazio bilera bat izango duzue Erregezaintzako eraikinean, irakaslearekin, jangelako arduradunarekin eta zuzendaritzarekin.

Ikasturtea

Irailaren 8an hasi eta ekainaren 21ean bukatuko da.

Ikasmaterialak

Ikastolan egindako materiala erabiliko dute. 9€ko kuotaren barne dago.



SARRERA-IRTEERAK ETA ORDUTEGI AUKERA DESBERDINAK

Sarrerak

Goizez, Heriz Pasealekuko sarrera 09:00etan zabalduko da eta arratsaldez, 15:00retan. Familiak umea gelara eramango du.

Irteerak

Eskolako ordutegia goizez 12:30ak arte eta arratsaldez 16:30ak bada ere, **HH2 ikasleen kasuan**: eguerdian, 12:20an eta arratsaldean 16:20an aterako dira.

Ikasturtean zehar

Urriaren 5etik aurrera goiz eta arratsaldeko ordutegia izango da.
Ordutegi aukerak:

- 09:00-12:20
- 09:00-jangela-13:30
- 09:00-jangela-siesta- 15:00
- 09:00-16:20

* Aukera erabakitzeke garaian zalantza baduzue, eta antolaketa pertsonalak aukera ematen badu, hobe da umea pixkanaka eskolan hastea. Urtariletik aurrera erabakitako aukera alda daiteke.

EGOKITZAPEN PROZESUA ETA GOIZEKO GELA

Egokitzapen prozesua

Ikasturtea bi taldetan banatuta hasiko dute:

Irailaren 8tik 15era:

- 09:00-10:15 Lehenengo txanda.
- 10:45-12:00 Bigarren txanda.

Irailaren 16etik 22era:

- 09:00-11:00 talde osoa batera.

Irailaren 23tik 29ra:

- 09:00-12:00 talde osoa batera.

Irailaren 30tik urriaren 4era:

- Talde osoa batera eta hiru aukera hauetako bat hautatuz: 12:20ak arte, jangela eta 13:30ak arte edo siesta ondoren, 15:00ak arte.

Goizeko Gela

Goizeko gela urriaren 5etik aurrera erabili ahal izango duzue (07:45 - 09:00).



3-12 URTEKO IKASLEAK

Ikasturtea

Ikasturtea 2022ko irailaren 8an hasiko da, eta 2021eko ekainaren 21ean amaituko da.

Sarrera- Irteerak

3 urteko ikasleak Herizeko atetik sartuko dira (goiko atea).

HH4-LH3 arteko ikasleak, Erregezaintzako atetik sartuko dira.

Talde bakoitzaren kokapena karteletan jarrita egongo da patioan.

4. mailatik (9 urte) aurrera ikasleak Heriz, 109ko eraikinerara joango dira.

Irteera eraikuntzara sartu diren atetik izango da.

Jardunaldi osoa eta murriztua

Irailaren 15etik aurrera jardunaldia goiz eta arratsaldez izango da ekainaren 20ra arte:

→ 09:00-12:30 eta 15:00-16:30

Jardunaldia goizez bakarrik denean, ordutegia honako hau izango da:

→ 09:00-13:00

Gelak eta tutoreak Irakasleen zerrenda eta tutoreen banaketa ikasturtearen hasieran jakinaraziko zaizkizue.

Ikasmaterialen programa

Lehen Hezkuntza

Ikasmaterialak

Hezkuntza Sailak ezartzen du programa hau Lehen Hezkuntzako maila guztietan.

Norbanako prezioa honako hau da:

- LH1-LH2ko ikasleak: 27,00 €
- LH3-LH4 ikasleak: 30,00 €
- LH5-LH6 ikasleak: 31,00

Testu liburuak eta materiala

Lehenengo egunean, tutoreak testu liburuak banatuko ditu eta ekarri beharreko materiala adieraziko die ikasleei.

Haur Hezkuntza

Haur Hezkuntzako 2 eta 3 urteko ikasleek, ez

dute libururik erosi behar. Ikastolan egindako materiala erabiliko dute.

4, eta 5 urtekoek berriz, ingeleseko materiala bakarrik erosi beharko dute.

Material honen prezioa hau izango da:

HH2 ko ikasleak (higiene materiala) 25€
HH3ko ikasleak 25€
HH4 eta HH5eko ikasleak 25€

HH4 eta HH5eko ingeleseko materiala ikasturte hasieran banatuko da eta banku bidez kobratuko zaizue (30€ inguru).

Gorputz Hezkuntza

Aurreko ikasturteetan bezala, goiko ikastolako Gorputz Hezkuntzako klase orduak Benta Berri kiroldegian izango dira. Orduetgia irailean banatuko zaio talde bakoitzari.

Ikastolako urteko kuota

Kuotaren arrazoia

Urteko kuota hau familiek hilabetero ordaindu behar dute, ikasturtean zehar egiten diren gastu batzuk ordaintzeko: material didaktikoa, irteeretako autobusak, museorako sarrerak, lizentzia dijitalak edo bestelako kultur ekintzak.

Kuota ordainketa

Ikasle bakoitzak ordaindu behar duen kuota 9€koa da, 10 kuotetan banatuta. Banku bidez kobratuko zaizue.

ZERBITZUAK

Jangela

Arduraduna

Tel. 943 899 184

jangelajarduerak@jakintzaikastola.eus

Ordutegia: 09:00-15:00

Edozein aldaketa telefonoz edota mailez egin behar da.

Egutegia eta ordutegia

Irailaren 8an hasiko da. Ekainaren 21ean bukatuko da.

LH 3tik aurrera etxera bakarrik joan behar den ikasleak, baimen idatzia ekarri beharko du.

Hileroko kuota

- Ohiko bazkaltiarren prezioa: 4.6€ egunean
- Noizbehinkako bazkaltiarra: 5.2€ egunean

Hileroko erabilera	prezioa
5 egun	90,50€
4 egun	71-73€
3 egun	53-55€
2 egun	35-37€
Egun 1	17-19€

Ratioak

Hezkuntza Departamentuak ezarritako ratioak hauek dira:

- 2 urteko ikasleak: 9 ikasle begirale bakoitzeko.
- Haur Hezkuntzako ikasleak (3-6 urte): 15 ikasle begirale bakoitzeko.
- Lehen Hezkuntzako ikasleak (6-12 urte): 37 ikasle begirale bakoitzeko.

Kuota ordainketa

Kuotak banku bidez kobratuko ditugu, hilaren lehenengo 10 egunetan, gutxi gora behera. Jangela noizbehinka erabili behar duen ikasleak 24 ordu lehenago abisatu beharko du. Menu berezien kasuetan, 48 ordu lehenago.



Dieta bereziak

Honako dieta berezi hauek zerbitzatuko dira:

- 1.- Intolerantzia, alergiak eta tratamendu zehatza duten gaixotasun bereziak izanez gero, mediku espezialistaren agiriaren bidez frogatuta eta Hezkuntza Departamentuak eskatutako dokumentazioarekin.
- 2.- Txerrikirik gabeko menua.
- 3.- Arrautza-esneki eta barazki menua (obolaktobegetarianoa).
- 4.- Arrautza-esneki-barazki menua arrainarekin. (obolaktobegetarianoa)

Kasu guztietan jangelako arduradunarekin harremanetan jarri behar zarete.

Deskontuak

Hezkuntza Departamentuak ezarritako araudiaren arabera, eskola irteera bakoitzeko eta jangela zerbitzua bertan behera geratzen den greba egun bakoitzeko %50eko deskontatuko da. Deskontu hauek ekaineko kuotan egingo dira.

Gainera, aste bat baino gehiagoko huts egiteak, aldeztu aurretik abisatuta, %50eko deskontua ere izango dute. Kasu honetan deskontua, hutsegitea eta hurrengo hilabetera izango da.

Goizeko gela

Egutegia

Aurreko ikasturteetan bezala, Guraso elkarteak zerbitzu hau martxan jarriko du irailaren 8an eta ekainaren 21ean bukatuko da.

*2 urteko ikasleek urriaren 5etik aurrera erabili ahal izango dute.

Ordutegia eta kuota

Gelak ordutegi hau izango du:

- 07:45-09:00

Prezioa egunean 3€koa izango da. 10 egun gutxienez erabiltzen duenak hilabetean 30€ ordainduko du.

Kuota banku bidez kobratuko da.

Oharra

Ez da zertan aldeztu aurretik abisatu behar zerbitzu hau erabiltzeko, beharra baduzu, umea zuzenean ekar dezakezu.

Harremanetarako:

jakingura@jakintzaikastola.eus



Norengana jo

Datuen aldaketa

Edozein helbide, telefono edo kontu korronteko aldaketa, mesedez administrariari jakinarazi:

Joan Luis Atxega

Tel. 943 899 184

korreoa@jakintzaikastola.eus

Idazkaritza

Edurne Ajuria

idazkaritza@jakintzaikastola.eus

Matrikula ziurtagiriak, ikasketa espedienteak etab. Eskuratzeko.

Jangela jangelajarduerak@jakintzaikastola.eus

Jantokiarekin zerikusia duten gaietarako, adibidez, mahaikideak bertaratu diren edo ez jakinaraztea, edo edozein zalantza argitzeko eta baita eguerdiko jardueren buruzko informazioa.

Eskolaz kanpoko ekintzak, Jakingura (Familia elkarte)

jakingura@jakintzaikastola.eus

Eskolako guraso elkarteak kudeatuta, jardueren buruzko informazioa jasoko duzue, etab.

Kirol jarduerak kirola@jakintzaikastola.eus

Eskola kirolarekin zerikusia duten gaiak kudeatzeko.

BEHEKO ERAIKINA (nagusia)

Erregezaintza, 12 tel: 943 899 184

GOIKO ERAIKINA

Heriz Pasealekua, 109 tel: 943 899 183

Eskolako posta elektronikoa

Eskolarekin komunikatzeko tresna da. Familia bakoitzak kontu bat duzue, kontu bakarra, nahiz eta seme-alaba bat baino gehiago izan. Kontu hau zuen seme-alaba gure eskolan matrikulatuta dagoen bitartean erabiliko duzue. Bananduta dauden tutoreek aparteko beste kontu bat eska dezakete. Mugikorrean txerta daiteke. Pasahitza ahaztu izanez gero administrariarekin harremanetan jarri beharko duzue: korreoa@jakintzaikastola.eus

Ebaluaketa datak

Haur Hezkuntza

Informe idatziak hirugarren iruhilabeteen banatuko dira. Ikasturtean zehar, tutorearekin banakako bilerak izango dira.

Lehen hezkuntza

1. ebaluaketa: Abenduak 23
2. ebaluaketa: Martxoak 31
3. ebaluaketa: Ekainak 20

Funtzionamendu oinarrizko arauak

Ikaslea sarrera-orduan berandu heltzen bada Atezaintzatik edo Idazkaritzatik pasatu behar da. Eskola orduetan eskolatik atera ahal izateko, alde zuzenetik aitak amak edo tutore legalak sinatutako oharra ekarri behar da. Horretaz gain, familiak (ikastetxeko Atezaintzara edo Idazkaritzara) etorri behar du umea jasotzera. Ikasleen ez etortzeak: Tutoreari frogagiria eman behar zaio kasu guztietan edo korreo elektronikoz jakinarazi.

Botikak ematearen inguruko oharra

Umeen osasunaren ardurak gurasoena denez, familiak erabakiko du, umearen egoera eta adina kontuan hartuta, eskolara bidaltzea ala ez, gaixotasunak irauten duen bitartean. Umea eskolara etortzea erabakitzen bada, botika-hartzeak etxean izan daitezela saiaturik da. Aipatutakoa bideragarria ez bada, eskolan botikaren bat eman behar zaion bakoitzean, medikuak emandako jarraibideen agiria ekarri beharko du. Bertan: ordutegia, kantitatea, maiztasuna, zenbat hartu behar duen, etab. zehatz agertuko dira.

Gaixotasun kronikoetan (alergiak, asma...) familiak txosten medikuak eta eman beharreko botikak ikastetxera ekarriko ditu.

Intolerantziak, alergiak eta gaixotasunak:

Ikasleren batek intolerantzia, alergia edo gaixotasunaren bat izanez gero familiak, tutoreari honako agiri hauek aurkeztu beharko dizkio:

- ✚ Espezialisten txosten mediko ofiziala.
- ✚ Ezbeharrez hartuz gero, jarduteko protokoloa.
- ✚ Ikaslearen argazkia.



2022-2023KO ZENTROAREN EGUTEGIA

Maila: HAUR-LEHEN HEZKUNTZA

Ikastetxeko kodea: 012368
 Ikastetxearen izena: CEIP JAKINTZA IKASTOLA HLHI
 Kurtsoa: 2022-2023
 Udalerria: Donostia / San Sebastián
 Lurraldea: Gipuzkoa
 Ikusk. Zonaldea: Donostia: Zona 1

IRAILA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

URRIA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

AZAROA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

ABENDUA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

URTARRILA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

OTSAILA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28					

MARTXOA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

APIRILA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

MAIATZA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

EKAINA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

EGUNA	GOIZEZ	ARRATSALDEZ
AL.	09:00-12:30	15:00-16:30
AS.	09:00-12:30	15:00-16:30
AZ.	09:00-12:30	15:00-16:30
OG.	09:00-12:30	15:00-16:30
OR.	09:00-12:30	15:00-16:30
TRI	09:00-13:00	
BER	09:00-13:00	

Guztira Eskola-egunak: 177
 Guztira Klase-egunak: 177
 Eskola-orduak guztira: 875:00

Lektiboa	15	Asteburua	15	Jardunaldi trinkoa	15	Jardunaldi berezia	15
Jaieguna	15	Klase gabeko lektibo	15	Oporraldiak	15	Zaintzari eguna	15
Herri jaia	15	Inhauteria	15	Zubia	15	Aurkezpena	15

Lurralde ordezkariak dokumentu honetan jasotzen den 2022-2023 ikasturteko egutegi eta ordutegia onartzea erabaki du.

Donostia-San Sebastiánen, 2022ko ekainaren 8an

GIPUZKOAKO LURRALDE ORDEZKARIAK

Aucia Urtab



Izpta.: AMAIA URZELAI AZKUNE

CEIP JAKINTZA IKASTOLA HLHIko zuzendari jaun/andrea